

## Iker Iribarria buruz buruko txapelketako irabazlea

2016/05/30

Iker Iribarria, pilotari gipuzkoarrak, igande honetan buruz buruko finala irabazi zuen, iazko txapelduna izan zen Mikel Urrutikoari irabazi eta gero. Txapela Gipuzkoara itzuli da, 1989tik ez zuen txapela gipuzkoar batek lortzen.

Aramako ezkerak, historia egin du, Euskal Pilotako txapelketa garrantzitsueneko txapeldun gazteena izatea lortu du. 19 urteko pilotaria Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoko 2.mailako Ingeniaritza Mekanikako Graduoko ikaslea da, Goierriko campusean.

**Zorionak!**

